

## Tuterara begira

TXILLARDEGI



**NIK** neuk, aitor dut, Berako ikastolako arduradunen esanak entzun nituenan, ahulezi une bat izan nuen; eta gertakari hitzen errua Benemeritak zuela pentsatu nuen.

Gero, ordea, sendoregai euskaltzalearen jarrera ezagutu ondoren, eta Del Burgoren alderdikidearen azalpenak irakurri, neure iritzia aldatu dut; eta orain garbi ikusten dut bai Beran gertatu dena, eta bai Tuteran egin beharko dena.

Beran probokazio bat egon da: abertzaleena; eta probokazioak ongi ezagutzen ditugu: 'los chiquillos revoltosos y batasunos de siempre'.

Eta hori motu egin behar da. 'Nafarroa Oinezen' hurrengo ekitaldian ez dira zirkuituan sartzen utzi behar. Nola? Hortziok kokka!...

Baina egia esan ez da dirudien bezain zaila. Euskararen kezka dutenen artean %99 abertzaleak direnez gero, arazoa hau da funtsean: nor dira %1 ez-probokazioak hori? Bestela esanda: preta dezagun ibiltari egoki eta zentzudunen zerrenda bat.

Tuterako festakoan, adibidez, Buesak joan behar du buru: zertarako nahi dugu Lehendakari ordea? Batez ere orain dela gutxi Ardanzak argi bera abertzalea dela esan duelarik.

Ondoko lerroetan Mugica Herzog anaiak joan daitezke, Rojo ere bai (zergatik ez? Makina txanponjaleen errudunak libre, eta Osakidetzaok ez?), Garcia Damborenea ere joan daitezke ibiltari-buruekin batera (festari zabalera politikoa handitzeko), eta Mario Onandia ere joan daitezke aurre-aurrean; eta, noski, Galindo era bai, Berako latsagarrikeriak gaitzesten ditugula garbi uzteko.

Zoritxarrez sortu den beldur-giroari gaitz hartzeko, gauza bat egin daitezke: Unai Iruñagaren belarri-eraztuna daramaten gazteei sarriera debekatu; eta hauen ordez 553. Comandancia osoa, fameliak eta guzti, Tuterara gonbidatzea. Eta, badakizue: '¡se acabaron las provocaciones!'.

## Kebek

INAKI SEGUROLA



**DE** Lancre sorgin-bortatzaileak idatzi zuen euskara hizkuntza iluna zela, baina argiturik utzi zigun euskaldunek ez ezik Kanadako indioek ere ikasten zutela gure

ilunbetako mintzo hau. Kanadako mapa zaharrek diote berriz, bazela Done Laurenti kolkoaren iber-ekzerrean Nouvelle Biscaye zeritzan aurkintza, erran nahi baita Bizkaiberri izana dela hura Frantziaberri baino lehenago.

Zer buruzpide genuen guk han? Ba, elkarren lagun ginela han-hemengoak oso antzinadanik, eta ez noski internazionalismoz eta solidaritaz, ez elkartasunez, baizik elkarrekikotasunez: haiek guri beren uretako balea eta bakailaua eta guk haiei geure aho-mihitako mintzo paregabea. Hartuak emana zor.

Eta orain zer da, eta Kebek deitzen duten naziogai horretako frantximantek beren buruak askatzeko sekula baino egokiera hobea iritsi omen dutela. Zer nahi duzue esatea? Nik gero eta gutxiago antzematen diot askatasun kontu horri: pentsa nezake kaiolako xoriñoarentzat libertatea zoinen eder den, baina beldur naiz eskuarki saldu nahi zaigun libertate, beregaitasun edo askatasuna, pertsonala edo nazionala (zelako berba zantarrak!), ez ote den nor bere gogoz eta eskuz egindako kaiola edo bizi-zeraldian gau-egunak tristerik kantatzen ematea. Halaiz guzti, ezin esango dugu orain Estatu bati artesia egitea gauza ona ez denik...

Zer diote Bizkaiberriko gure aspaldiko lagun haien ondorengoek, gerizpetan 'bixi' diren mohawk, inuit edo dena delakoek? Errezelo txarrak harturik omen dabilaz, beren jaun zuriak jaunagotzen ikusiko dituzten beldurrez-ek. Eta zer diogu guk? Gauza handirik ez: sekula gezatzen ez zen bakailauren gatzak elkarretaratu gintuela, eta, horixe, ibili genuen bideak harrapa gaitzala.

## EL PAIS

Irlandar jarrerak

Errepublikarek erreferenduma Irlanda osoan egin beharko litzatekeela behin eta berriro esatea eztabaidarako hasierako baieztapen gisa baino ezin ulertu daiteke. Bertan bizi diren giza taldeak direla eta, Ulsterren integrazioa da auzitan dagoena. Irlandako Errepublikako lehen ministro Reynoldsek berak adierazi du ez litzatekeela demokratikoa izango integrazioa egitea horrekin zerkusirik duten biztanleei, hots, Ipar Irlandakoei, kontsultatu gabe. Hain zuzen ere, iparraldeko biztanleen iritzia gorabehera, bere Konstituziotik irlaren batasun aldarrikapena kentzeko konpromezua izan zen errepublikak Downing Streeteko akordioa ahalbidetzeko onartu zituen baldintzetako bat.

Hortaz, kontua formula negoziatu bat lortzea da, Ulsterreko biztanle gehien atxikimendua lortuko duena. Egun, inork ezin jakin dezake zein izango den formula hori,



TASIO / EGIN

prozesuaren amaieran erreferendum baten bidez erabakiko litzatekeena; baina akordioek aukera ematen dute hori elkarbizitzan tajatu joateko. Apustua, biolentzia desagertuta, bi komunitateen artean eta horien eta Hegoaldeko errepublikaren artean harreman ekonomiko eta sozialak biderkatu ahal izatea da, balizko bateratzea inorentzat mehatxugarria izan ez dadin; belaualdi bat edo bitan egin beharreko lana.

EDITORIALA

## DEIA

HB eta debataek

Herri Batasuna kexu da telebistako debataetan baz-

tertzen dute eta. Eskubide osoa dute horretarako.

EITBko Administrazio Kontseiluak hala erabaki du aho batez. Zuzenbidearen arabera hartutako erabakia da.

Zer gertatzen ari den? Oso erraza da: alderdiak, instituzioak eta herritar asko HBz gogaituta daude oso. Hitz gogorragoak ez erabiltzeagatik.

HBk bere jarraitzaileak gartu egiten ditu. Burua berro-berro eginda gainontzeko alderdien egoitzetara hurbiltzen dira eta ahalik txikizio handienak egiten dituzte. Bestetan, ertzaintzaren edota afiliatu huts eta arrunten aurka egiten dute.

Aurrekari hauekin, gero nekez joan eta eser daitezke

era zibilizatuan eztabaidatzeko kalean beroaldi horiek probokatzen ari direnekin.

Oso zaila da, bezaz, horiekin hitz egitea, egunean baino egunean zailagoa eta problematikoagoa. Zenbat eta boto gutxiago izan orduan eta erradikalago bihurtzen baitira.

Egia da, orobat, dutena baino garrantzi handiagoa ematen zaiela. HBko baseei.

Azken finean, pertsona normalak dira, gainontzekoen bertute eta akats berak dituztenak. Horietako askok utzi egin diote HBri botoa emateari. Hurrengo hauteskunderetan berriz ere jaitziera garrantzitsua izango dutela iragarri dute.

PATXI URIARTE

## ZUZENDARIARI

### Barka nazazu Kintana, Baiña...

Gazteen portaeraz Nafarroa Oñezen Kintana egiten duen deskribapen apokaliptikoaz ados egotea subjektiboa da.

Bakoitza sensibilitatearen arabera.

Dena dela, Beraren paraje zoragarriak urte osoan han egon eta lekuren 'ixitatu' lasaia eta txorien kantauk' dastatu nahi izan Nafarroa Oñezek batean, 80.000 lagun Berara inguratzen direnean, eman du Kintanaren sensibilitatea lekuri ez daukala euskal festetan. Berdin euskeraren alde edo edozein herriko jaiak izan.

Horrela ulertzeko da Kintanak ateratzen dituen ondorioak zuzenak ez izatea.

Giro berdiañaz ospatu dira Atarrain, Etxarrin, Tafallan, Lizarran, Altsasun, Bianan e.a. Nafarroa Oñezak eta egundo ez da istilurik izan.

Horregatik, gazteen portaerei eta istiluei lotura zuzena ematea inoizkeria da. Azken baten edozein agure erreakzionario egingo lukeen Guardia Zibilaren desentkusamendua. Pena, betean.

J. M. ZABALA  
Bilbo

### J. Etxebarriari erantzunez

Zenbait aipamen motz zure aurreko eguneko artikuluskari buruz.

Lehenbizi, indiar askok ez dute luma erakutsi beharrik zein tributakoak diren jakiteko. Badakigu, beraz, zurea zein den. Ez da nereara ordea. Garbi dago Atutxa jauna ez dela zure santurik mirestuen. Neuk mirestutakoan artean badago. Zergatik? Ausardia behar baita Afrikaraino iritsi ez ziren bandaloei, autobusak zein kabinak erretzea gustoko duten horiei eta amonala herramintza duten usetzeko abertzale horiei behar bezala aurre egiteko. Euskal Herrian gehiago dira berri egiten ari den lana ongi ikusten duten abertzaleak, zenbait ostatutan dianetako zuri bezala jarri ohi direnak baino. Besterik gabe, agur.

JAVIER ARRASATE AIERBE  
Lazkao (Gipuzkoa)

## GAIA JARRITA



## Udazkena

Orbelaren aro, haizearen jardina; maisuen loagitza, ikasleena berdina; ehiztarien gozo, artzainen erremina; medikuen Hauster, birusuen San Fermin.

RUFINO IRAOLA

## Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URIA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXEL OJAMENDI

Zuzendariordea: LUZIEZ ETXEHARRRETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / w: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoktza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakinuna, 16-1 / 20010 Donostia / w: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabara: San Antonio, 20-1, ezker. / 01005 Gasteiz / w: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroara: Iratxe Monastegia, 45-13, esk. / (Iruñizi dorrea) / 31011 Iruñea / w: 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Egunerata, 2-1, ezker. / 48003 Bilbo / w: 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Posta Kutxatila, / 64100 Baiona / w: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11